



PROIEKTUAREN FITXA

Izenburua - Título

FLASHBACK – Maitasun istorio baten hastapenetan

Egilea - Autor

Aitor Gametxo

Generoa - Género

Fikzio/dokumental hibridoa

Tagline

Target - Merkatu objektiboa

Proiektua nork zuzenduko lukeen - Posible director del proyecto

Aktore nagusiak, nortzuk - Posibles protagonistas

Akore ez profesionalak
+ Unax Ugalde eta Barbara Goenaga sekundario gisa euren buruak antzezten.

Egilearen CV laburra - Breve CV del autor

Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi ostean Bilbo eta Bartzelona bitartean, Sormenezko Dokumentalgintzan oinarritutako masterra egin nuen Bartzelonan.

Taldean Maria Elorza eta Maider Fernandezekin batera "Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa" (2013) egin ostean, 2014an PUNTO DE VISTA Dokumentalen jaialdiko X-Films deialdia irabazi nuen. Laguntza horretatik 2015ean "El otro mapa de Abautz" dokumental luzea estreinatu nuen.

Ez-fikziozko laburmetraiak egin ditu ordutik ("Bere bizitzako bat", "Soinu galduen bila") eta baita "Distantziak" (2015) dokumental kolektiboa ere, Territorios y Fronteras eta Zinebi Jaialdiak ekoiztua.

2016an "Cicha Symfonia" lana ekoiztu nuen Polonian DSS2016 Hiriburutza ekimenaren baitan.

Horrezgain, muntatzaile gisa egin du lan gehienbat Tabakalera edo CCCB moduko kultur instituzioetarako, eta baita freelance gisa ere.

2016an Eusko Jaurlaritzako gidoi sorkuntzarako diru-laguntza lortu nuen, fikzioa eta dokumentala uztartzeko asmoa duen "Flashback" pelikula idazteko.

MEMORIA (Euskaraz)

Izugarri dut gustoko zinemaz mintzo den zinema. Badute izugarritzko xarma, normalean ezkututzen diren gauzak kamera aurrean jartzen dituzten film horiek. “**Metazinema**” bezala ezagutzen den kontzeptu honek, tratamentuekin jolastea ahalbidetzen du; hots fikziozkoa izan daitekeen estruktura minimoa “prestatu gabeko aurkikuntzekin” modu oso poetiko eta ederrean osotzeaa. Nire asmoa, fikzioaren bidez ibilbide minimo bat trazatu ostean, aurkikuntzetan harreta jartzea da: kaletik igaro daitekeen jendea, ezustean gertatu daitezkeen keinuak, *chroma* baten eraikitze prozesua edo antzezleei emandako pautak... dena den, puntu honetan, ez dago hau idazterik imajinazioa alde batera utzi gabe.

Bada, guzti honen erdian imajinatzen dut Martin, edonor izan daitekeen eta oraindik bizitzaz ezer ez dakien gaztea. Martinen presentziak filmaketan, atzerritarraren begirada eskeiniko du. Ikuslea eta Martin bat izango dira. Horrela ikusiko ditugu filmaketa bateko dinamika errealak, ezer ez dakienaren begiradatik. Martin aktore ezagun baten bertsio gazteagotua gorpuzteko aukeratu dute *casting* batean, beste milaka gazteren artean. Martinek, Unaxengan jarriko ditu bai begiak bai eta bere kamera digital txikiaren objektiboa ere, ahalik eta hoberen imitatzeko Unaxen keinuak pantailan. “**Bikoitza**”-rena beste kontzeptu garrantzitsua izango da. “Bestea” den baina zu ere izan zaitezkeen eta izatera behartuta zauden “ni” arraro hori. Honela, Unax Ugaldek bere burua interpretatuko luke eta Martin, aktore ez profesional batek, alderdi dokumental horri garrantzia emateko.

Filmaketak gizartearen metafora gisa funtzionatuko du pelikula honetan; hots, jokaerak eta erlazioak pautatzen dituen sistema konplexua gorpuztuko da, argiztapen, soinu eta irudi teknikari, makilaia eta jantzi arduradun, ezkoizle, zuzendari, bekario eta gainontzeko pertson(ai)en bitartez. Martinen jokaeretan influentzia izango dute guztiek: muxukatu neska hau, ez gurutzatu hankak, egin irribarre... eta errealitate arraro horretan, etxeko errealitate gordinaren testuinguruan eta bere barne izaera eta desiren hastapenetan, ez du ongi jakingo nola jokatu.

SINOPSISIA (Euskeraz)

Filmatzen ari diren euskal-superekoizpen bateko *flashback* sekuentzietan Unax Ugalderen bertsio gazteagotua gorpuzteko aukeratu dute MARTIN (pelikula honetako protagonista) *casting* batean. Grua, kamera, klaketa eta gainontzeko tramankulu artean, Martinek bere ametsa bete du: film baten barrunbeak ezagutzea. Erosi berri duen kamera digitalarekin, pelikularen *makingof* inprobisatua grabatzeari ekin dio lehen egunetik. Aitzakia horrekin, Unax Ugalderen irudiz bete du kamera, bere logelaren intimitatean honen keinuak behin eta berriz begiratu, buruz ikasi eta imitatzeko. Baina, agian aitzakia bat baino ez da. Izan ere, ikustatze horietatik, sentipen berezi eta berri bat sortuko da Martinen barnean. Bere kamera digitalarekin grabatutako irudiek etorkizuneranzko bide ezezagun posibleguztiak *pixel* multzo bihurtuko dituzte, izan nahiko eta izan behar litzakeenaren arteko talkan.

/ Hitz-gakoak: identitatea, gaztaroa, sexualitatea, metazinema, dokumentala.

SINOPSIS (Castellano)

En el casting de la última superproducción vasca, MARTIN, el protagonista de esta película, ha sido seleccionado para interpretar en las secuencias *flashback* a la versión joven de Unax Ugalde. Entre grúas, cámaras, claquetas y demás materiales, Martin ha cumplido su sueño: conocer desde dentro una película. Con la pequeña cámara digital que acaba de comprarse ha comenzado a grabar un *making of* del proceso. Martin ha llenado la cámara con imágenes de Unax Ugalde, en un intento por ver, aprender y reproducir los gestos de Unax, en la intimidad de su habitación. Pero esto quizás sea sólo una excusa. Puede que sea a raíz de estas reproducciones, cuando Martin comience a sentir algo especial y nuevo dentro de sí. Las imágenes grabadas con esa pequeña cámara digital convertiran los desconocidos caminos del futuro en un puñado de pixeles, en constante enfrentamiento entre aquello que querría y aquello que debería ser.

/ Palabras clave: identidad, juventud, sexualidad, metacine, documental.